

rria. Garantia hori 100 miloekoa da. Zer da, baina, 100 miloe tamaina honetako enpresa batentzat? Deus gutxi, gutxiegi iraun ahal izateko. Independiente iraun ahal izateko, behintzat, bai.

Txukuna, egokia, atsegina, argia aurkitu dut *La Voz*. Atsegin gertatu zait bere lehen zenbakitan. Irakurterraza egin zait. Ez horrela «Gaiak» saila, euskarazko saila. Lekuz kanpo bezala, egunkarian integratu gabe ikusten dut atal hori. Ez da hori euskal kazetaritzat behar zuen aurrerapidea.

La Voz de España-tik dator *La Voz de Euskadi*. Espainia-tik Euskadira. Ongi etorria. ■ *Joan Altzibar*.

Joseba Intxausti: 25 urte JAKINen

Aurten da 25 urte Joseba Intxausti *Jakin*-en idazten hasi zela, 1958an, gaur arte lankidetzan jarraitzeko. Hasi, egia esateko, lehenago hasi zen, 1957an: baina bere lehenengo urte hartan izenorde batekin zinatu zuen.

Sortzaileak utziaz inork ez bait du gero aldizkarian jarraitu, gaurko *Jakin* hau egiaz egin dutenak, Joseba Intxausti eta Joan Mari Torrealdei izan dira, nahiz lankideak eta laguntzaileak biok izan aldioro.

Barnetik begiratura, *Jakin*-en 25 urteak hura egiten zihardutenen 25 urteak dira. Hona hemen, *Jakin*-en historian, Joseba Intxaustiren historiatxoa aldizkariaren barruan.

1956tik, hau da, sorreratik 1959ra artean sortzaile talde osoa ihardun bazen zuzendari eta erredakzio gisa batera, urte honetan funtzionaketa modu berri bat abiatu zen aldizkarian, Joseba Intxausti eta Kepa Enbeita Zuzendaritzaren kargu eginez. Hauek izan dira *Jakin*-en lehenengo Zuzendari propioak, nominalak. Hiru urte egon zen Joseba Zuzendaritzan, aldizkariari joera berri bat emanaz. Beste zortzi urtetan lankide gisa, kanpotik, lagundu ondoren, 1970etik aurrera, gaur arte, berritri Zuzendaritzan edo laguntzaile taldean ibili zaigu, eginkizun desberdinen erantzule. Hau izan da, labur-labur, haren bidea *Jakin*-en.

Aldizkariak Intxaustiri zor dion txitezkoena hitz bakar batez adieraztekotan, beti haren normalizazioan aritu dela, behar izan duela, esango genuke.

Lehenengo ùnean, 59tik aurrera, bitxia bada ere, Arantzazuko nagusi eta frantziskotarren agintariekiko harremanak normalizatzen. Hau da, aldizkaria etxe barruan bertan onarrazten. Ez bait zen denen oso begikoa jaio. «Pixkaka-pixkaka ikastetxearen barnean nagusiekiko errespetagarritasun bat irabazten da. Zuzendariei errazagoa gertatzen zaie orain beren lana, eta samurragoa da kanporako hariak mugitzea» (21, 1981, 77).

Zailagoak izango zituen hurrengo lanak. 1961eko abenduan Administrazioak debekuz eta multaz interbenitzen du Bilbotik. Joseba administrazioarekikoak normalizatzen ahaleginduko da, 1964ean baimen ofiziala eskuratu arte.

1970ean berriro Barzelonatik Zuzendaritzara etorri zenean, gure aldizkaria debekatuta zegoen berriro, *Jakin*-en bigarren debekua. Zazpi urte luzetan ahalegin beharko da oraingoan, Josebak lehenengo, Santamariak lagunduta, 1975etik aurrera Torrealdaik, 1977ko otsailean berriro baimena lortzeko.

Bitartean, aldizkaria egiterik ez bait dago, lehenengo irtenbide bezala saio liburuari ekin zaio *Jakin*-en, 1969an hasita. Baina liburugintza hau soluzio inprobisatua izan da, ez dago programatua.

Beraz, 1970ean Josebak Zuzendaritza bere gain hartu zue-nean ez aldizkaririk zeukan, ez erredakzio talderik, ez eta programarik ere, lana nondik eraman. Historia txiki bat eta gogo handia baino apenas ezer gehiago. Ez zen amore eman. Aspergabe aldizkariarentzat baimen bila saiatzeaz beste, erredakzio lagunak bildu zituen eta azpiegitura ezarri zion ondoko lanari (bulegoa Tolosan, Larreatarren laguntzarekin), liburugintzari hain zuzen, *Jakin*-en zuzendaritza ere rotatiboa bihurtuz.

Aurrera baino lehen aipa dezagun, Intxaustik berak 1972an saio liburu bat argitara eman zuela, *Iraultzaren hildotik*, azterketa historikoa.

Urte hauetan euskal kultura momentu berri batetan ari da sartzen. Hogei urte lehenago aldizkariak bezala (1950: *Euzko Gogoia*; 1953/54: *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Othoizlari*, *Egan* euskara hutsean; 1956: *Euskera*, *Jakin*...), 70 inguruan bata bestearen atzetik argialetxeak sortzen dira: 1968, *Gordailu*; 1969, *Lur*, 1970, *Irakur Sail*, *Etor*... *Jakin*-en lehenengo «liburuak», aldizkaria debekatu eta gero, aldizkari-liburuak izan dira, saio bildumak, ez liburuak eta ez aldizkariak. Aldizkaritasunari nolabait eutsi nahi bazaio ere, bidea birplanteatu beharra dago, ateratzen den produktua nahitaez aldizkari baino liburuago da eta. Baina, bestetik, liburu produkzioan sortzen ari diren argi-

taldariek in lehia alferrean sartu baino lehen, aztertu beharra dago zein izan litekeen *Jakin-en* tokia eta eginkizuna egoera berrian.

Etorri lehenagotik zetozen proiektu batzuei eta harremanei helduz, Rikardo Arregi zenduaren asmoei bereziki, unibertsitari euskaltzaleekin ikastaroak antolatzen saiatu zen Intxausti 70. lehen urteotan (Donostiako Zuzenbide Fakultatean), Pio Montoiaren eta Donostiako zenbait irakasleren laguntzarekin. Eta batez ere 72an bilera bat egin zen Donapaleun lankide eta unibertsitari euskaltzaleen multzo, ordurako dextente, batekin, liburgintzaren aurreprogramaketa eztabaidatzeko. «Kulturaren oinarrizko idazkiak sortu beharra» aitortu bait zuen bilkura honek, berehalaxe «*Jakin Bide*» sorta abiatu da (*Axular-en Hiztegia*, *Gero*, Holandako *Kristau Bidea*) eta «*Jakin Hiztegien*» proiektua martxan jartzen da (Arantzadiko talde baten *Natur Zientziak*).

Laster ikusi zen, oso laster, proiektu hauek *Jakin-en* ahalmenak zeharo gainezkatzen zituztela eta bi gauzak banatzea erabaki zen: *Jakin-ek* bere tokian geratu behar zuen, bere saio bildumekin jarraituz aldizkaria lortu arte, eta bai oinarrizko kultur textuen lanak eta bai hiztegiak *Jakin-etik* aparte behar zuten desarrolatu, ezer izango baziren eta *Jakin* bera itoko ez bazuten. Josebaren gain geratu zen lan horietarako soluzio teknikoak eta juridikoak bilatzea, euskal kultur taldeekin batera. Haindik sortu zen UZEI, *Jakin-etik* aparte eta apartatzeagatixe, nahiz Joseba Intxausti lehenengo Zuzendaria izan (baina probisionalak, espreski).

Gero istiluren batzuk egon bait dira guzti honen inguruan, istiluok baino lehenago idatzitako pasarte hau argigarria izan daiteke:

Oinarrizko obren asmo handia izan zen gehien atzeratu zena (*hau da, orain UZEIren inguruan ikusten dena*), izan ere ez bait zen erraza ideia haren formulazio juridikoa aurkitu, euskal kultur taldeei eskaini eta asmoa obratzeko bideetan jartzea. Formulazio juridikoak hila-bete luzeak eraman zituen, agian aldizkari oraindik debekatuarena eta beste elkargo baten ideia nahasi egiten zirelako (1976). Aldizkariak bere legezko irtenbidea garbitu zuenean (1977), beste bigarren lan haietarako ideia instituzionala eta soziala lantzea errazago gertatu zen: hizkuntzaren normalizazio planketa ahalik jende gehienaren onarpenez egin behar zenez, lantalde guztiei sarbidea irekiko zien erakundea moldatu behar zen, ez gurea bezalako talde txiki bati zegokiona. Horrela, irabazten irten ziren aldizkariaren egitekoa (1976), eta oi-

narrizko obren beste plangintza (1977, abuztua). Banaketa honek JAKIN aldizkari-taldea murriztu eta mugatu badu ere, erosotasun berria ekarri diete (gure aldizkariari eta denon normalizazioari) lan-berezkuntzak eta erantzukizunen independentziak. (Jakín, 21, 1981, 107).

Jakín-en historian Josebak egin duen gauzarik ondorio-tsuen, halere, 1959ko biraketa iruditzen zaigu. *Jakín*, hasieran, *Euzko Gogoa*-ren ereduari jarraitu nahiez agertu zen, Orixeren eta Zaitegiren liluraz. Joseba Intxaustik eta Kepa Enbeitak itzuli zuten *Egan*-en aldera, polemika luze baten buruan, Euskaltzaindiari atxekiz, Orixeri edo baino gehiago, eta orduan Mitxelenak, Villasantek, Txillardegik seinalatzen zuten bideari lotuz hizkuntza aldetik (ik. aip. zenb., 47-48, 81-85, 88-90, 149-152, 162-166, 234-242). Ez da beraiek aitortu zAharra, zerk animatu omen zituen biraketa honetara: «Kritika hura (Mitxelenarena *Egan*-en) izan zen (Txillardegiren lanekin batera), Olabide, Orixe, Zaitegi eta *Euzko Gogoa*-ren ordurarteko joera nagusiari aurpegi emanez, gure artean zenbait begiak ireki zizkiona eta, esan ere, zerbait esateko ausartzia eman ziguna».

Ez dugu uste gauzak beti behar eta nahi bezain ongi egin ditugunik, eta badakigu behin baino gehiagotan oker ere ibili garela. Halere, gure lana hobetzeko eta okerrak zuzentzeko, makina bat lagun izana eta izatea, lehen eta orain, bizkorgarria dugu. *Jakín*-ek zor asko eta zor haundiak ditu. Aipaturiko Mitxelenarekin eta Txillardegirekin, esate baterako, behin eta berriaz aitortua daukagunez. Ez da txikiena *Jakín*-ek aspaldian Joseba Intxaustirekin daukana: zor zahar, baina ona, eta zaharragotuko eta hobetuko delakoan. ■ *Joxe A. Otaegi*.